



Zertaz dira kezu bibliotekariak? Jaurlaritzaren liburu politika 'hipotetikoaz'

Agurtzane Juanena (Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kidea)
2004-01-00

Abenduaren 24ko Berria-n liburutegiei buruzko informazioa agertu zen, Liburutegi hipotetikoa izenburuaren azpian, alde batetik, Arantza Arzamendi Jaurlaritzako Euskal Ondarearen zuzendariaren adierazpenak, eta, beste aldetik, Teresa Agirreazaldegi EHUKo irakasleak eta Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kideak, Euskonews-en ateratako artikulua zati batzuk biltzen zituzten (testu osoa, Euskonews&Media 234. zk, 2003/12/12-19; <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/>).

Liburutegi munduarekin harreman zuzena ez duenari zail samarra egingo zitzaion ulertzea zergatik, Arzamendiren esanetan halako gauza interesgarriak eta baikorrak izanik, Agirreazaldegiren artikulua pragmatiko eta konstruktiboan, berriz, mezu kritikoa nagusitzen zen. Izan ere, proposamen bikainak ageri ziren Kultura Saileko ordezkariaren diskurtsoan: «Liburutegien Euskal Legea egitea, Liburutegi Nazionala sortzea, Liburutegi Batzordea eratzea, Udal Liburutegien katalogoak informatizatzea eta Liburutegi Sistemaren Katalogo Kolektiboa sarean jartzea». Edozein bibliotekari liluratzeko moduko lorpenak (lehenago behar genituen, baina, tira, ez dugu ozpindurik jarraituko behingoan iragarri dizkigutenean...). Zergatik bada, hain kritiko, bibliotekaren arloko zenbait profesional? Zertaz dira oraindik ere kezu herri honetako bibliotekariak? Arrazoi mordoxka legoke aipatzeko, baina ni artikulua honetan euskara teknikoaren egoerari lotuko naitaio soilik. Jaurlaritzari dagokionez, egitasmo benetan anbiziotsuen falta aipatu beharra dago. Denok bat gatoz aitortzean azken bi hamarkadetan euskararen normalizazioa ez dela inondik ere gauzatu, eta asmoetan ere ados gara: lehentasunetako bat katalogoen elebitasuna ziurtatzea da, horretarako behar diren tresnak eta arauak garatuz. Zein da orduan problema? Euskara marjinaziotik aterako duen politika eraginkorrik ez dugula oraindik ere antzematen. Euskara normalizatzearen ardura, «interesatuta» dauden bibliotekaren esku geratzen dela, Jaurlaritzak koordinatzaile papera harzen duelarik. Baina koordinazioa da aginteari dagokiona ala zerbait gehiago egin beharko luke? Ez al luke hizkuntza politika argi bat ezarri behar beste arlo batzuetan egin duen bezala? Liburutegi Sistemaren Katalogo Kolektiboa eratzea da Jaurlaritzaren epe motzeko bi erronketatik bat, eta berau koordinatzeaz arduratuko da, baina ez die bertan integratuko diren liburutegiei inolako eskaerarik egingo euskararen tratamenduari dagokionean. Nahiz horietako asko, gehienak, erdara hutsez ari diren oraindik ere. Etxean hasita, Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiak bere katalogoa erdara hutsez dauka. Baita EHUKo Liburutegiak edo euskal gaitan espezializatua den Santxo el Sabio Fundazioko liburutegiak ere. Euskara «kontenplatu» dago, bai, udal liburutegien sareko katalogoan (Jaurlaritzaren epe motzeko beste «erronka» bat) baina katalogazio lana modu kooperatiboan planteatzen da, berez txiki eta ahul diren liburutegien bizkar utzirik munduko toki gehienetan liburutegi nagusi, zentral, edo nazionalen ardura dena. Eta ez nolana hiko katalogazioa, katalogazio elebiduna, euskara garatu eta normalizatzearen zama erantsia duena. Beraz, Jaurlaritzak udal bibliotekaren bizkar botatzen ditu logikaz bereak diren (izan beharko luketen) ardurak. Badirudi egungo errealitate gordinari proiektu hipotetiko birtualekin egin nahi zaiela aurre, gabeziaren eta erdipurdikeriaren eredia (azken 20 urtetako eredia) ez dela, behingoz, atzean utzi nahi. Eta horrela, munduko borondate onena edukita ere, ez da posible. Azkue Bibliotekako zuzendari eta mintegikide den Pruden Gartzia berriki artikulua batean (<http://groups.yahoo.com/group/joana>

albret/message/1234). gaztigitzen zuenez, ez dauka Jaurlaritzako ordezkarien borondate onari buruzko inolako zalantzarik. Beste batzuk ere ez daukagu zalantza izpirik. Kontua da borondate ona boluntarismoarekin ezkontzeak ondorio onak emango dituela, akaso, beste esparru batzuetan, ez botere publikoen jardunean. Noski, dena ez da Jaurlaritzaren errua. Ezta gutxiagorik ere. Arestian aipatu dudan liburutegi nagusien elebakartasuna (gaztelaniazkoa, of course) ez zen horrela mantenduko baldin eta bertako profesionalak, bibliotekariak, euskararekiko begirune gehixeago izango balute. Euskaltzale izan gabe ere (euskaltzale izatea ez baita funtzionarioen obligazioa), gizarte elebidun batean zerbitzu elebiduna eman behar dutela ulertzeko nahiko maila profesionala izango balute. Profesional konpetenteez ez lukete dudarik egingo behitasunaren (edo eleaniztasunaren) alde ekiteko, euskaltzaleak izan edo ez. Baina, ondo pentsatuta, haiena ere ez da erru guztia. Izan ere, non dira haien arduradun politikoak? Euskararen aldeko konpromiso formalez hitzaldi dotoreak ematen dituztenak? Adibide bat: zortzi urteko parentesiaren ondoren, aurtengo urrian izan ziren, Donostian, Jaurlaritzak eta ALDEE elkarte profesionalak antolatuta, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren I. Jardunaldiak (http://www1.euskadi.net/libro_bibliotecas/libroybibliotecas/03default.htm). Aurkeztutako lau txostenetatik bat bera ere ez euskaraz. Hamazazpi jakinarazpenetatik, bat. Jakinarazpen bakar bat. Horixe izan zen euskararen presentzia guztira. Baina okerragoa ere izan zitekeen, eta izan zen, bi hilabete beranduago, Gasteizen, Euskal Ondare Bibliografikoari buruzko Mintegia-n, den-dena gaztelania hutsez egin baitzen (propaganda orria kenduta). Kontseiluko ordezkariak zioten berriki (2003-11-4), Euskara sustatzeko akordio sozio-politikoaren harira, hizkuntz normalizazioaren prozesua moteltze fasean dagoela eta horrek kezka handia eragiten ziela. Liburutegi batzuen kasuan ezin da inboluzioaz hitz egin, honez gero ohartuko zinetenez. Nekez egin dezake atzera aurrera inoiz egin ez duenak.

Bukaerarako utzi dut Jaurlaritzaren kultur egitasmoen izarra, Kulturaren Euskal Plana. Agiri definitiboa ezagutzen ez badut ere (abendurako iragarria zegoen) liburutegien arloko behin-behineko dokumentuan bazetorren liburutegi nazionalaren funtzioei buruzko aipamena. Lehen lan ildoan, preseski, baina «liburutegi nazionala» deitu beharrean «organismo central» deituta delako erakundeari (kasu egin: «organismo», ez «biblioteka»). Diotenez, azterketa fasean dago. Diotenez, ondo aztertu behar da liburutegi nagusi edo nazionala beharrezkoa ote den. Murtzian edo Helsinkin dudan jartzen ez dutena, dudan jartzen da hemen. Ez dakit, baina batzuetan inpresioa hartzen dut baten batzuk biblioteka nazionalaren beldur direla. Beldur diote «nazional» hitzari, baina baita «biblioteka» hitzari ere. Zergatik? Itzala egingo dietelako? Itzala, euskaraz, ez da gauza txarra.

Dena dela, bada kontu larriagorik noraezaren itsasoan. Hemen ere ez dira bibliotekariak duda egiten duten bakarrak, hainbat kultur kudeatzailek ere ez dauka garbi. Honela zioen Koldo Mitxelena Kulturuneko arduradun den F. Lopez Landatxek biblioteka nazionalaren galderari erantzunez: «Hay que detectar las necesidades, pero creo que el proceso lógico sería trabajar en red lo existente en Euskadi y, si quieren, también en bibliotecas de lugares como Reno (EEUU) o Navarra, que tienen fondos de lo vasco» (El País-en, 2003-11-25). Lopez Landatxeri erantzuten ez bazion ere, erantzun bezala har genezake Hasier Etxeberriak Donostian eraiki nahi den Tabacalera puntako egitasmoaz esandakoa: «Ezagutzen ez duenarentzat esan dezadan, hiriaren erdian dagoen eraikin itzela dela Tabacalera hori, eta kultur industriaren zereginetara bideratzekotan dabilzala azkenaldion Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta Donostiako Udala. Batean hau eta bestean hura entzuten da, baina, zertan da gaur Tabacalera? Inork ez dio garbi erantzungo galderari, ez hartu lanik alferrik. Soilik inbertsio handiak egin behar direla esango dizute, eta estrategikoki ekarri handia egin beharko digula geroan. (...) Oinarrizko lanak egin gabe, urrutiko intxaurrak amets beti. [Pako] Aristirena bezalako liburuak gordetzeko Biblioteka Nazionalik ez daukagun une honetan, mundua konkistatu nahi dugu gure kultur produkzio abangoardiakoekin». (Zintzotasunaz eta intxurrez artikuluan: Argia aldizkaria, abenduaren 14», 1.924 zk.). Ez dezagun, hala ere, esperantza gal erabat. Berria-ko informazioan honela zioen Arantza Arzamendik: «litekeena da eraikin baten alde erabakitzea, proiektu erraldoia izaki azpiegitura egokia behar izango duelako». 2004ko aurrekontuetan diru partida bat eskatzen zen, liburutegi digitalaren eta liburutegi nazionalaren proiektuak bideratzeko. Legebiltzarrak omen zuen azken hitza eta jadanik badakigu ez dela aurrekontu berriki izango. Hala ere, Jaurlaritzak eta erakunde publiko guztiek (guztiek) dute euskararen normalizazioa segurtatuko duen liburutegi politika serio bat abiatzeko erantzukizuna.